

Agurtzane Intxaurraga

ANTZERKILARIA

## Zorion saminduak

**E**z dago zorion perfekturik sortzen duen saririk. Euskadi sariak, Oscar sariak, Max sariak... Gero eta gehiago dira sariak han eta hemen. Era eta kolore askotako sariak: diru sari distiratsuak, sari sentimentalak, muxu kolorekoak hauek, sukalde usainekoak, apasionatuak, ikurrak sari gisa, zilarra, brontzea... Edozer eta edonor izan daiteke saritua. Sariak banatzea egungo gizarte lehiakor eta indibidualistako eguneroko bazka baita. Modu polita artaldea zuzen eramateko, baita artaldeko kideak elkarren aurka jartzeko ere. Ez gara, ez, sariekin ados jartzen. Nola ba, batzuentzat sarigarria dena, beste askorentzat deitoragarria denean? Ez, ez dago guztiok pozez zoritzen jarriko gaituen saririk. Urliarentzat gezurretako saria dena, berendiarentzat hil ala bizikoa, ze, bizitza salbatzen duten sariak ere badaude baina sari zamatsuak ere bai, norbere buruari galdetzea baino ez duzue.

“Dirutza kopuruak beste diziplinatan daude, arte eszenikoetan ordea, ideiak daude, gizarte hobea bat egiten duten ereduak, aldaketen hazia, ze herrialdeak ideien bidez eraikitzen dira. Pertsonak aldatu eta gizarte hobea egiten dituzten ideien bilduma arte eszenikoetan biltzen da”. Hauexek laburbilduta, SGAEko Zuzendaritza Batzor-



ALBERTO ELOSEGI

deko lehendakari Tedy Bautistak, pasa den hilaren 16an Bilboko Euskalduna Jauregian ospatu ziren Max sarietako Galan sariak banatzen hasi aurretik esandako hitz potoloak. Ondoren etorri zen sagar uzta banaketa. Gero, sari-sagarra eskuetan zutela, dotore-dotore jantzita eta begiak malkoetan bilduta, sarituen hitzak, ahots dardarez esandakoak ia guztiak: “Esker zintzoa lehenik eta behin familiari, lan taldeari, euren alde bozkatu zutenei, hantxe zeudenei...” eta abar luze bat.

Gala hasi aurretik ordea, eszenatoki hartatik metro gutxitara, beste forma eta koloreko sariak banatu ziren. Hauek ere arte eszenikoekin lotuak: Estrella (horiak) sariak-Bilbao 2007. Goian aipatutako sarietan bozkatzeko aukera izan zutenetako askok, izan zuten aukera ere Estrella sarietan bozkatzeko, baita sarituak izateko ere, batean zein bestean. Bietan saria eraman zuenik ere egon zen. Sariak horixe baitute, une berean bat baino gehiago jaso ditzakezula, pertsona berberak den-denak har ditzakeela edota oso sakabanatuak egon daitezkeela. Batak emandako poza handik segundo gutxira, besteak sortutako lotsaz ezaba daitezkeela. Sari gaiztoak, gaiztakeriaz egindako sariak, gaiztotutako sariak... hau far-del pila guk geuk sortua! Zorion saminduen bilduma. ■



Sariak horixe baitute, une berean bat baino gehiago jaso ditzakezula. Batak emandako poza handik segundo gutxira, besteak sortutako lotsaz ezaba daitezkeela



## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Zuten kako edo ohoin gau asegaitez, inoren eta inongo baimenik gabe etxean sartzeko.

Goizerokoa nuen haiek uxatzeko lehen lana. Dozena bat orrikoa zen batez besteko eguneroko prezioa, noski neronek jan beharrekoa. Egun, Internetek ordezkatzan du itzalita daukadan faxa. Merkeagoa zait, baina ezin amatatu. Bikoiztu egin da ez-gogoko bisitarien inbasioa. Eta jada ez dute gaua baliatzen, noiznahi sartzan zaizkit ordenagailuan nik ezarri hesiak gaindituz. Normalean ez dute deus galdetzen. Zernahi proposatzen didate. Amuak dira. Gaur, berezi bat iritsi da. Banesto bankoaren segurta-

## Lehen, faxa

sun sailak bidalia omen. Eta nire berri jakin nahi dute, beren zerbitzu sistema automatizatuek hobekuntza dakarkidatela aitzaki. Jada, ez naute harritzen. Baina nola da posible inoiz beren bezeroa izan ez naizen honi zerbitzu hobea eskaintzea? Amarrua dirudi, baina nola jakin mezuaren gibelean nor dagoen eta nola iritsi den nireganaino? Nire lagun batek dioen bezala, hauek oparotasunaren ondorioak ditugu, gu bezalakoak, larre motxean haziak nekez ulertuko ditugunak. Baina ikasten ari gara gu ere, eta zuzenbide elektronikoen bila gabiltza hartzaileengana iristeko gureak iragartzeko, kantitatetik kalitatea datorrela sinetsirik. Bozkak lekuko. ■